TOLOSAKO UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUENA JABETZE ESKOLAK BERDINTASUN-SENTSIBILIZAZIOA EGITEKO ETA PROGRAMAZIOA BILTZEKO ERABILTZEN DUEN LIBURUXKAREN DISEINU ARTISTIKOA ETA MAKETAZIOA EGITEKO. PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ESLEITUKO DA ZERBITZU-KONTRATUA.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EN EL CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA REALIZACIÓN DEL DISEÑO ARTÍSTICO Y MAQUETACIÓN DEL FOLLETO DE SENSIBILIZACIÓN Y PROGRAMACIÓN EN MATERIA DE IGUALDAD DE LA ESCUELA DE EMPODERAMIENTO, A ADJUDICAR POR EL PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.

0.- SARRERA

Jabetze edo ahalduntzearen terminoa erabiltzen denean, banakako eta taldekako ikaskuntza- eta kontzientziatze-prozesu bat adierazi nahi dugu. Mundu osoko gizarteetan, sexismoak diskriminazio- eta gutxiagotasun-egoeran ezartzen gaitu gu, emakumeok, eta jabetzeak ahalbidetzen digu hori salatzea eta horren kontra borroka egitea.

Espazio hau pentsatuta dago emakumeon jabetzea eta parte-hartze politikoa sendotzeko, hartara, gizarte justuagoa, dibertsitate handiagokoa eta osoagoa lortzeko. Ez da ohiko prestakuntza-lekua: Jabetze Eskolan, Mugimendu Feministak garatutako jakintza-ekoizpen kolektibo eta partekatuaren metodologia erabiltzen dugu.

Metodologia honek aukera ematen du izendatzeko emakumeek eta sexu-orientazio edo sexu-genero identitate desberdineko kolektiboek bizi duten menpekotasun-errealitatea, errealitate hori zalantzan jartzeko eta alternatibak proposatzeko. Asmoa da esperientziak eta jakintzak partekatzea, eta, horrekin batera, gorputzarekin gozatzea, eta diskurtsoak, artea, kultura eta aldarrikapenak ekoiztea. Azken finean, kontua da munduaz dugun pertzepzioa aldatuko duen esperientzia bat bizitzea, eta, esperientzia horrek, aldi berean**,** mundua aldatzeko tresnak ematea.

Eskola tresna gisa ulertu behar da, honako hauen zerbitzura: berdintasun-printzipioa

0.- INTRODUCCIÓN

Se llama empoderamiento al proceso de concienciación y aprendizaje personal y colectivo, a través del cual las mujeres hemos podido denunciar y luchar contra la situación de discriminación e inferioridad social que impone el sexismo en todas las sociedades del mundo.

Este espacio está dirigido a potenciar el empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres, para conseguir una sociedad más justa, diversa y completa. No es un lugar de formación típico. En la Escuela de Empoderamiento utilizamos la metodología de producción colectiva y compartida de saberes desarrollada por el Movimiento Feminista.

Esta metodología permite nombrar, cuestionar y proponer alternativas a la realidad de subordinación de las mujeres y de colectivos con orientación sexual o identidad sexo-género diversas. Se trata de compartir experiencias y conocimientos, pero también de disfrutar con el cuerpo, producir discursos, arte, cultura y reivindicaciones. En definitiva, se trata de vivir una experiencia que cambie nuestra percepción del mundo, y que, al mismo tiempo, nos dote de herramientas para cambiarlo.

La Escuela ha de ser entendida como una herramienta al servicio del desarrollo del

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc2816o2f37f

garatzea, Mugimendu Feministaren teoria eta praktika ezagutzea, emakumeek espazio publikoan duten parte-hartzea eta eragina areagotzea, sareak sortzea, indarkeria matxistaren prebentzioa, ezagutza eta lankidetza pertsonala eta taldekoa, parte-hartzaileak udalerriko elkarte-sarera eta parte hartzeko udal-organoetara hurbiltzea.

Hauek dira laneko ardatz estrategikoak: feminismoa, genero-ikuspegiaren integrazioa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, kulturartekotasuna, berdintasunezko kultura eta komunikazioa eraikitzea, justizia soziala eta elkartasuna, gizarte-antolaketa erantzunkidea, emakumeen identitatea eta subjektibotasuna eta abar.

1.- TESTUINGURUA

EAEko Jabekuntza Eskolak 2000ko hamarkadaren hasieran sortu ziren, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat udaletako berdintasun-sailek bultzatuta, emakumeen ahalduntze sozial eta politikoa bultzatzeko. Gaur egun, eskolak 20 udalerri baino gehiagotan daude.

Lan-ildo beretik, Tolosako Emakumeentzako Jabetze Eskola 2009an sortu zen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ildo horretan ezarritako jarraibideei jarraituz.

Martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duenak, berariaz ezartzen du administrazioek, besteak beste, Jabetze Eskolen zerbitzua eskaintzeko betebeharra dutela.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren III. Berdintasun Planak (2020-2023), helburu operatiboen artean, honako hau du: emakumeen elkarteen, emakumeen etxeen eta jabetze-eskolen lana indartzea, askotariko baldintzetan dauden emakumeen ahalduntze pertsonala eta

principio de igualdad, del conocimiento de la teoría y práctica del Movimiento Feminista, del incremento de la participación e influencia de las mujeres en el espacio público, de la creación de redes, del conocimiento y colaboración personal y grupal, de la prevención de la violencia machista, del acercamiento de las participantes al tejido asociativo del municipio y a los órganos municipales de participación.

Los ejes estratégicos de trabajo son: feminismo, integración de la perspectiva de género, orientación sexual e identidad de género, interculturalidad, construcción de una cultura y comunicación igualitaria, justicia social y solidaridad, organización social corresponsable, identidad y subjetividad femenina, etc.

1.- CONTEXTO

Las Escuelas de Empoderamiento de la CAV surgen a comienzos de la década del 2000, impulsadas por las áreas de igualdad de varios ayuntamientos de Bizkaia y Gipuzkoa, para impulsar el empoderamiento social y político de las mujeres. Hoy en día, estás escuelas existen en más de 20 municipios.

En la misma línea de trabajo, la Escuela de Empoderamiento para las Mujeres de Tolosa surge en el año 2009, siguiendo las directrices establecidas en ese sentido por la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, establece expresamente la obligación de las administraciones de ofrecer el servicio de las Escuelas de Empoderamiento, entre otros.

Asimismo, el III Plan de Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa (2020-2023) cuenta entre sus objetivos operativos: potenciar el trabajo de las asociaciones de mujeres, casas de mujeres y escuelas de empoderamiento, como herramientas para el

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc281602f37f

kolektiboa garatzeko tresna gisa.

Egun, Tolosako Udalak 2015-2020 aldirako III. Berdintasun Plana du indarrean. Helburu espezifikoen artean ezartzen du Tolosako Jabetze Eskolaren proiektu estrategikoa sendotzea, eta eskualde-mailan emakumeentzako gune propioa sortzea.

Tolosako Emakumeentzako Jabetze Eskola sendotzeko ahalegin horietan, 2013az geroztik, jardueren programazioa liburuxka ilustratuen bidez ematen zaie ezagutzera herritarrei.

Liburuxka hauek ez dira Eskolaren publizitate hutsa. Marrazkiak berdintasunaren alde programatutako jardueren helburuen, edukien eta metodologiaren arabera diseinatzen dira. Hori horrela, ahalegin berritzaileak dira diseinu artistikoen bidez, imajinario sinboliko-kultural kolektibo berdinzaleak aberasteko, eta horregatik, berez, sentsibilizazio-tresna dira.

Beraz, irudi sexistak edo parekideak ez diren irudikapenak saihestera behartzen duten neurriak betetzetik haratago doaz.

Diseinatzeko modu horrek gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei buruzko prestakuntza eta esperientzia espezializatua eskatzen ditu. Era berean, berdintasuna lortu nahi duten politika instituzionalak, pentsamendu eta praktika feministak ezagutu behar dira, eta horiek komunikazio artistikoan islatzen jakin behar da.

Adibide gisa, irudikapen batzuk aipa daitezke: eremu publikoan bildutako eta etxean besteen zerbitzura ez dauden emakumeen irudiak; kalean eta tradizioz maskulinoak izan diren espazio publikoetan protagonista izan diren emakumeak (musika, kirola, etab.); desberdintasunek kaltetutako autoestimua

desarrollo del empoderamiento personal y colectivo de mujeres de diversas condiciones.

Actualmente, el Ayuntamiento de Tolosa tiene en vigor el III Plan de Igualdad 2015-2020. Entre sus objetivos específicos establece la consolidación del proyecto estratégico de la Escuela de Empoderamiento de Tolosa y la creación de un espacio propio para las mujeres a nivel comarcal.

En estos esfuerzos por consolidar la Escuela de Empoderamiento para las Mujeres de Tolosa, desde el año 2013, la programación de actividades se da a conocer a la ciudadanía a través de folletos ilustrados.

Estos folletos no son simple publicidad de la Escuela. Los dibujos se diseñan en función de los diferentes objetivos, contenidos y metodología de las actividades programadas a favor de la igualdad. En ese sentido, son esfuerzos innovadores para enriquecer, a través diseños artísticos, imaginarios simbólico-culturales colectivos igualitarios, y por ello son, en sí mismos, una herramienta de sensibilización.

Por tanto, van más allá del cumplimiento de medidas que obligan a evitar imágenes sexistas o representaciones de mujeres y hombres no paritarias

Esta forma de diseñar implica formación y experiencia especializada en torno a las desigualdades entre hombres y mujeres. Así también, requiere conocer las políticas institucionales, el pensamiento y las prácticas feministas que persiguen la igualdad, y saber reflejarlas en la comunicación artística.

A modo de ejemplo, se pueden mencionar algunas representaciones: imágenes de mujeres reunidas en el ámbito público y no aisladas en casa al servicio de los demás; mujeres protagonistas en la calle y en los espacios públicos tradicionalmente masculinos (música, deporte, etc.); mujeres que

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc281602f37f

indartzeko bizipenak eta baliabideak trukatzen dituzten emakumeak, eta indarkeria matxistei aurre egiten dietenak; beren gorputzak, nahiak eta sexualitatea ezagutzen dituzten eta beren osasun fisikoa eta mentala zaintzen duten emakumeak; emakumeen eskubideen aldeko borrokarekin identifikatutako gizonak, beren pribilegioei uko egiten ikasteko eta, horrela, berdintasunezko mundu bat lortzen laguntzeko antolatzen direnak...

Gaur egun, Tolosako Udalak ez du berdintasunaren ikuspegian espezializatutako lan artistiko honek eskatzen duen giza baliabide eta baliabide teknikorik.

intercambian vivencias y recursos para fortalecer la autoestima dañada por las desigualdades, y hacen frente a las violencias machistas; mujeres que conocen sus cuerpos, sus deseos, su sexualidad y cuidan su salud física y mental; hombres identificados con la lucha por los derechos de las mujeres, que se organizan para aprender a renunciar a sus privilegios y contribuir así a un mundo más igualitario...

Actualmente, el Ayuntamiento de Tolosa no dispone de los recursos humanos y técnicos que exige este tipo de trabajo artístico especializado en el enfoque de igualdad.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Diseinu artistikoa eta maketazioa egitea, Tolosako Udalaren Jabetze Eskolaren programazio-liburuxkaren ikuspegi feminista eta intersekzionaletik.

Jabetze Eskolaren liburuxkaren programazioa ikuspegi intersekzionala kontuan hartuta planteatzen da. Ikuspegi horrek, generoaz gain, diskriminazio-kausa diren zenbait aldagai biltzen ditu, hala nola jatorrizko herrialdea, klase soziala, sexu-identifikazioa eta -aukera, administrazio-egoera, dibertsitate funtzionala eta abar.

2. OBJETO DEL CONTRATO

Elaborar el diseño artístico y maquetación, desde una perspectiva feminista e interseccional, del folleto de sensibilización de la Escuela de Empoderamiento del Ayuntamiento de Tolosa.

La programación del folleto de la Escuela de Empoderamiento se plantea teniendo en cuenta la perspectiva interseccional, que además del género, introduce una serie de variables que son, asimismo, causas de discriminación, tales como el país de origen, la clase social, la identificación y opción sexual, la situación administrativa, la diversidad funcional, etc.

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunak honako zerbitzu hauek eskaini beharko ditu:

3.1.- Urte bakoitzean, bi programazio zabaltzen dira, udaberrikoa eta udazken-negukoa. Beraz, urte bakoitzean sentsibilizaziorako eta programaziorako 2 liburuxka diseinatu eta maketatuko dira, bakoitza 20-24 orrikoa, DIN A5 tamainan eta 4+4 tintatan inprimatzeko. Bi liburuxkak Eskolako ziklo hauei dagozkie:

3.- SERVICIOS A PRESTAR

La empresa o persona adjudicataria deberá ofrecer los siguientes servicios:

3.1.- Cada año se realizan dos difusiones de la programación, la de primavera y la de otoño-invierno. Por tanto, cada año se diseñarán y maquetarán 2 folletos de sensibilización y programación de 20-24 hojas cada uno para su impresión en tamaño DIN A5 y en tinta 4+4. Los 2 folletos corresponden a los siguientes ciclos de la Escuela:

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc2816021f37f

1) Udaberria

2) Udazkena-negua

3.2.- Jarduera batzuk puntualak dira (hitzaldiak, mahai-inguruak, etab.), eta beste batzuk iraunkorrak, udaberrian eta udazkenean errepikatzen direnak. Bi liburuxka horietako bakoitzak portada ilustratu bat eta 10 marrazki izango ditu gutxienez. Azken horiek, batez ere, jarduera berriei lotuta egongo dira.

3.3.- Marrazkiek modu artistikoan islatuko dituzte helburuak, metodologia eta edukiak, zabaldu beharreko jardueren ikuspegi feminista eta intersekzionala txertatuta.

3.4.- Liburuxkako irudiek estilo artistiko homogeneoa izango dute, diskordantzia estilistikoak saihestuz.

3.5.- Liburuxka bakoitza bi artxibo digitaletan emango da, PDF formatuan, bata dibulgazio-erabilerarako eta bestea inprimategian erabiltzeko.

3.6.- Enpresa adjudikaziodunak JPG formatuan entregatuko du ilustrazio bakoitza bere aldetik, bai eta liburuxkako orrialde bakoitza ere, dagozkion testu eta irudiarekin.

3.7.- Maketatzerakoan, kontuan izan beharko dira korporazioaren identitatea bereizten duten eskakizun kromatikoak eta tipografikoak. Horiek Udalak emango dizkio enpresa edo pertsona adjudikaziodunari.

4.- ZERBITZUAREN INGURUKO BESTE ALDERDI BATZUK

4.1.- Zerbitzua emango duen enpresak edo pertsonak bete beharreko baldintzak.

4.1.1.- Liburuxkako irudien estilo artistikoaren uniformetasuna eta koherentzia kontuan hartuta, enpresak irudien eta maketazioaren

1) Primavera

2) Otoño-invierno.

3.2.- Algunas actividades son puntuales (conferencias, mesas redondas, etc.), y otras de carácter permanente, que se repiten en primavera y en otoño. Cada uno de estos dos folletos tendrá como mínimo una portada ilustrada y 10 dibujos. Estas últimas estarán ligadas principalmente a nuevas actividades.

3.3.- Los dibujos reflejarán de forma artística los objetivos, metodología y contenidos, incorporando la perspectiva feminista e interseccional de las actividades a difundir.

3.4.- Las imágenes del folleto tendrán un estilo artístico homogéneo, evitando las discordancias estilísticas.

3.5.- Cada folleto se entregará en dos archivos digitales en formato PDF; uno para uso divulgativo, y otro para uso en imprenta.

3.6.- La adjudicataria entregará en formato JPG cada una de las ilustraciones por separado, así como cada una de las páginas del folleto por separado, con el texto e imagen correspondientes.

3.7.- En la maquetación se deberán de tener en cuenta las exigencias cromáticas y tipográficas que diferencian la identidad corporativa y que serán facilitadas por el Ayuntamiento a la empresa o persona adjudicataria.

4.- OTROS ASPECTOS RELACIONADOS CON EL SERVICIO

4.1.- Requisitos de la empresa o persona que prestará del servicio.

4.1.1.- La uniformidad y coherencia de estilo artístico de las imágenes del folleto requieren que la empresa designe a una persona

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc281602f37f

arduradun bat izendatu beharko du, eta pertsona hori egongo da harremanetan Udaleko Berdintasuna Saileko kontratuaren arduradunarekin.

4.1.2.- Enpresa adjudikaziodunak Udalaren esku jarriko ditu zerbitzua behar bezala emateko behar den prestakuntza-profila eta lan-esperientzia duten profesionalak.

4.1.3.- Langile arduradunak antzeko 3 zerbitzu izan beharko ditu eginak; hau da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegia duten diseinu artistikoak.

Honako titulazio hauetako bat izango du, orientazio gisa soilik, eta inola ere ez murriztailea: Arte Ederren, Arte Grafikoen, Diseinu Industrialaren, Diseinu Digitalaren, Diseinu Grafikoaren eta Multimediaren arloetako goi-mailako edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak edo baliokideak. Era berean, baliozkoak izango dira Lanbide Heziketako ikasketak arlo baliokideetan.

Halaber, gutxienez 30 ordu izan beharko ditu jasoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza formalean edo informalean.

Udalarekin egiten diren bileretan eta beste bide batzuetatik egiten diren komunikazioetan, euskararen erabilera lehenetsiko da; beraz, enpresa adjudikaziodunak Udalaren esku jartzen dituen langileek euskararen ezagutza ziurtatu behar dute.

Euskara hutsezko testuen bidez deskribatutako jardueren —hau da, jardueren % 50— ezaugarrietara egokituz ilustrazioak egin beharrak, eta horiek zuzen maketatzeak hizkuntza-gaitasunaren maila egokia ziurtatzea eskatzen dute. Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila egiaztatu beharko da.

responsable de las imágenes y maquetación, quien será la que se relacione con la persona responsable del contrato en el Área de Igualdad del Ayuntamiento.

4.1.2.- La adjudicataria pondrá a disposición del Ayuntamiento el personal profesional con el perfil formativo y la experiencia laboral necesaria para la adecuada prestación del servicio.

4.1.3.- El personal responsable deberá contar con 3 servicios similares; es decir, diseños artísticos con enfoque de igualdad de mujeres y hombres.

Estará en posesión, a título meramente orientativo, y en ningún caso restrictivo, de una de las siguientes titulaciones: estudios universitarios superiores o medios en las áreas de Bellas Artes, Artes Gráficas, Diseño Industrial, Diseño Digital, Diseño Gráfico y Multimedia o equivalentes. Asimismo, serán válidos los estudios de Formación Profesional en áreas equivalentes.

Asimismo, deberá contar con un mínimo de 30 horas de formación formal o informal en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Se priorizará el uso del euskera en las reuniones que se celebren con el Ayuntamiento y en las comunicaciones por otras vías, por lo que el personal que la empresa adjudicataria ponga a disposición del Ayuntamiento debe asegurar el conocimiento del euskera.

La necesidad de realizar ilustraciones ajustándose a las características de las actividades, descritas mediante textos íntegramente en euskera, esto es, el 50%, así como la maquetación correcta de los mismos, requieren asegurar el nivel de competencia lingüística adecuado. Deberá acreditar el nivel de competencia B2 del Marco Europeo de Referencia.

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc281602f37f

4.2.- Lan-metodologia

Eskatutako lanak egiteko, enpresa edo pertsona adjudikaziodunak izendatutako arduraduna gutxienez behin bilduko da aurrez aurre Berdintasuna Saileko kontratuaren arduradunarekin, liburuxka bakoitza planifikatzeko, eta etengabeko komunikazioa izango du harekin, telefonoaren edo posta elektronikoaren bidez, lanaren garapena gainbegiratzeko.

Aurrez aurreko bilera bakoitza baino hiru egun lehenago, Udalak zuzendutako testuak, logotipoak eta beharrezkoak diren beste elementu batzuk bidaliko dizkio enpresari o pertsona adjudikaziodunari. Enpresak edo pertsona adjudikaziodunak 4 asteko epean egingo du liburuxka osoaren diseinua eta maketazioa. Horietako azken astebetea erabiliko da egin daitezkeen behin betiko zuzenketak egiteko, Berdintasuna Saileko arduradunarekin komunikatuta.

Zuzenketak egin ondoren, adjudikaziodunak bidaliko du liburuxka, PDF formatuan, inprimatzera, Berdintasuna Sailak adierazitako inprimategira.

Udalak urtarrilaren amaieran (udaberriko programazioa) eta ekainaren amaieran (udazken-neguko programazioa) bidaliko ditu testuak.

4.3.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.3.1.- Lizitatzaileak nahitaez aurkeztu beharko du liburuxka diseinatzeko proposamena.

Proposamena garatzeko, testu bat argitaratuko da kontratatzailearen profilean, lizitatzaileak gutxienez bi marrazki edo ilustrazio aurkez ditzan, testuari forma eman diezaion eta, ondoren, maketazio-prozesura eraman dezan.

Gainera, eta orientazio gisa soilik, aurreko diseinu-ereduak emango zaizkie lizitatzaileei, eta

4.2.- Metodología de trabajo

Para la ejecución de los trabajos solicitados, la persona responsable designada por la empresa o persona adjudicataria, se reunirá al menos una vez de forma presencial con la persona responsable del contrato del Área de Igualdad para la planificación de cada folleto, y mantendrá una comunicación permanente con ella a través del teléfono o el correo electrónico, para la supervisión del desarrollo del trabajo.

Tres días antes de cada una de estas reuniones presenciales, el Ayuntamiento enviará a la empresa o persona adjudicataria los textos corregidos, logotipos y otros elementos necesarios. La empresa realizará en un plazo máximo de 4 semanas el diseño y la maquetación del folleto completo. La última de esas semanas se destinará a realizar las posibles y definitivas correcciones, en comunicación con la responsable del Área de Igualdad.

Una vez realizadas las correcciones, la adjudicataria será la encargada de enviar el folleto para su impresión, en formato PDF, a la imprenta que el Área de Igualdad le indique.

El Ayuntamiento realizará el envío de los textos a finales de enero (programación de primavera) y finales de junio (programación otoño-invierno).

4.3.- Documentación a presentar

4.3.1.- La licitadora deberá, obligatoriamente, presentar una propuesta de diseño del folleto.

Para el desarrollo de la propuesta, se facilitará un texto en el perfil del contratante para que la licitadora presente dos o más dibujos o ilustraciones, dar forma al texto, y posteriormente lo lleve al proceso de maquetación.

Además, y a efectos meramente orientativos, se proporcionará a las licitadoras ejemplos

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc2816o2f37f

kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gainerako dokumentazioarekin batera.

4.4.- Beste betebehar batzuk

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunak baldintza hauek bete beharko ditu:

4.4.1.- Zerbitzuaren arduraduna enpresa adjudikaziodunaren mende egongo da, eta ez du inolako harreman juridikorik izango Tolosako Udalarekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez kontratua amaitzen denean.

4.4.2.- Lanaren, zergen, laneko arriskuen prebentzioaren eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dauden xedapenen arabera arautuko da, eta Udalak eskatzen dion bakoitzean egiaztatu beharko ditu horiek, dagokien ziurtagirien bidez.

4.4.3.- Udalak jartzen dituen jarraibideak errespetatu eta bete beharko dira zerbitzua ematerakoan.

4.4.4.- Kontratutik eratorritako lanen edo betebeharren ondorioz udalari edo beste batzuei sor dakizkiekeen kalte guztien kalte- ordainen ardura bere gain hartuko du, bereziki diseinu, maketazio eta euskarazko eta gaztelaniazko testuen tratamenduari dagozkionak**.** Kalteen artean ulertuko dira, halaber, Tolosako Udalaren irudiari eragindakoak.

4.4.5.- Kontratu honekin eman beharreko zerbitzuagatik adjudikazio-hartzaileak jasotako informazio guztia konfidentziala dela ulertuko da, eta datuen identitatea eta konfidentzialtasuna gordeko du. Datu edo informazio horri dagokion isiltasun profesionala ez gordetzeagatik eragindako kalteen erantzulea enpresa izango da, nahiz eta kalteak haren menpeko langileek eragindakoak izan.

4.4.6.- Kontratu honen ondoriozko irudiak eta maketazioak Udalaren jabetzakoak izango dira, eta behar dituen bide guztietatik zabaldu ahal

anteriores de diseños, mediante su publicación en el perfil del contratante, junto al resto de la documentación.

4.4.- Otros requisitos

La adjudicataria deberá cumplir los siguientes requisitos:

4.4.1.- La persona responsable del servicio dependerá de la empresa adjudicataria, y no tendrá relación jurídica alguna con el Ayuntamiento de Tolosa, ni durante la vigencia del contrato, ni a la finalización del mismo.

4.4.2.- Se regirá por las disposiciones vigentes en materia laboral, fiscal, de prevención de riesgos laborales y de Seguridad Social, debiendo acreditarlas cada vez que el Ayuntamiento se lo solicite mediante los correspondientes certificados.

4.4.3.- Respetar y cumplir las instrucciones del Ayuntamiento en la prestación del servicio.

4.4.4.- Asumir la indemnización de todos los daños causados al Ayuntamiento o a terceros como consecuencia de los trabajos u obligaciones derivados del contrato, especialmente los relativos al diseño, maquetación y tratamiento de textos en euskera y castellano. También se considerarán daños los causados a la imagen del Ayuntamiento de Tolosa.

4.4.5.- Se considerará confidencial toda la información que, a consecuencia del servicio a prestar con este contrato, reciba la adjudicataria, que deberá guardar la identidad y la confidencialidad de los datos. La empresa será responsable de los daños causados por no guardar el secreto profesional correspondiente a dichos datos o información, aunque hayan sido causados por el personal a su cargo.

4.4.6.- Las imágenes y maquetación derivados de este contrato serán de propiedad municipal, y podrá difundirlos por todos los canales que

ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc2816o2f37f

izango ditu.

precise necesarios.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

5. DURACIÓN DEL CONTRATO

La duración del contrato será de un año, prorrogable por otro año más.

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

www.tolosa.eus

EKS | CSV: **ESKU1d91af7e-cb34-42a8-83da-dc281602f37f**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110